

## "AURTIXOA SEASKAN" KANTARI ZENBAIT OHAR

Gerraondo ekintzetan, gazte ginelarik, bateratsu ezagutu nituen "Aurtixoa seaskan" deritzan kanta eta Klaudio Sagartzatzu "Satarka" zenaren **Txinpartak** olerki liburua. Hori aski zen, denbora latz haietan, egilea ezagutzeko berebiziko zioa sortzea nere gogoan. Ni kaxkagorria izaki eta zein egun zorionsua igaro nuen Madalena inguruan Satarka, Bordari eta hirurok mahaikide bildurik izan genuen hitzaspertuan. Bi olerkari hondarribiarrok ezagutzearan egin zitzaizkan hiri hau hunkigarri.

Geroztik, bi olerkari zenden oroitzako oso atsegigarri zait. Horregatik, Elgoibarko euskara mintegikoek elkar lanean eskoletarako atera duten hirugarren liburuan, **Euskal Hizkuntza eta Literatura** deritzanean, satarkaren irudia eta kanta hura irazkinturik ikusteak poz handia eman dik.

Egileen artean, Elgoibarko A. Alberdi, I. Garmendia, A. Ugarteburu eta M. Villasantekin batean hiri honetan bizi den Markos Balentziaga dator, behar bada honi esker sartua da Satarka. Olerkariaren lanak eta gizentasunez zenbait ohar interesgarri dakarki eta Luis Mariano irundarrari atsegini izatez gainera bere kanten erreperorioan toki berezia ematera iritsi zirela dio.

Olerkia, **Txinpartak** liburuan argitaratua zen, 1922. urtean, baina doinua gerrate garaian inguruan ezarri zioten. J. Olaizola aipatzen da hor doinu erasle, baina ziurtasunez azalduko badugu, Olaizola bi anaiak izan zute beren parte. Doinu Gabrieli zor zaio eta armonizazioa Joseri. 1937-1939. urteetan euskal kulturaren enbajada gisa Eusko Jaurlaritzak Europa eta Amerika zehar Ga-

berri Olaizolaren zuzendaritzapean igorri zuen **Eresoinka** taldea, bere historia J.A. Arana Martiak agertua da izenburu hori darron liburuan, eta bertan ikus dezakegu kanten egitarauetan behin eta berriz "Aurtixoa seaskan" zerrendaturik.

Baina, gutik dakitena da, Satarkaren anai Txomin tenor bikaina zela eta hau izan zela ahots bakarrean lehen aldiz plazaratu zuena, piano laguntzaz. Geroztik nork ez ote du ezagutzen Euskal herrietan eta heremendik kanpo?

Olerkariaren eraginak, bere seaska kantaren bidez, musikarien bihotzak irabazi zituen, doinua jartzetik era askotara aurkeztera arte. Hara hemen hitzez-hitz **Txinpartak**-ren hamahiru eta hamalau orrialdeetan datorrena:

**Aurtxo polita  
Seaskan dago,  
Zapi zuritan  
Txit bero...  
Amonak dio:  
Ene potxolo!  
Arren egin ba,  
Lo-lo, lo...**

Dlin-dlan, dlin-dlan...

**Ai biotzeko  
Maite, kutuna,  
Begi argien  
Zoruna;  
Ez da ludian  
Iñor ere nik  
Bainon geiago nai  
Zaitunik.**

Dlin-dlan, dlin-dlan...



"Satarka" (A. Valverde)

**Gotzontxu eder,  
Zoragarriak  
Egan dabilta  
Gañean;  
Irri-barreka,  
Laztan ta agurka  
Laguntza egin  
Naiean.**

Dlin-dlan, dlin-dlan...

**Txakur-aundia  
Etorriko da  
Zuk ez ba'dezu  
Egiten lo.  
Orregatik ba  
Ene potxolo!  
Egin aguro  
Lo-lo, lo...**

Dlin-dlan, dlin-dlan...

Juan San Martin

## "HITZEZ HITZ" LEHIAKETA (2)

Jaietako zenbaki berezian "HITZEZ HITZ" lehiaketarako dei egiten genuen eta lehiakide saiatuek ez digute huts egin. Bost hitz eman genituen esan-nahia argitzeko eta epe barruan bidalitakoan artean hiruz izan dira asmatzaileak: Alaitz Agirre, Marga Aristizabal eta Lierni Mendizabal. Zorionak hiruroi. Hiruron azalpenak eta adibideak elkartuz eta laburtuz erantzun hauek eskaintzen ditugu:

1) AIEKA.

Alde, alderdi, bazter, inguru.  
"Goazemizu aieka hartara".

2) ABANTIAN.

Arraunean aurreraka egitea.  
"Abantian faki ginela bateri arrauna erori zaio".

3) AIUA.

Kezka, ardua larria.  
"Aiotan egon nitzen zu joan zinenean", zorrak aiaua".

4) APASTA.

Beita gisa arrainak erakartzeko uretara botzen diren arrain hondar txehetuak.  
"Apastako txardinak".

5) ATAULE.

Jañaldi ederra, otordu oparoa.  
"Ama Berjinenaren egunean hura ataulia in genuena!".

Hurrengorako beste bost hitz hauek eskaintzen ditugu. Aurrekoan bezala, ortografiari nolabait errespetua galduz, esateko moduan idatzirik.

- 1) "motxokara" 2) "alateko (...)"  
3) "inpromatu" 4) "anguxatua"  
5) "baltz egin".

Erantzunak bidaltzeko epea datorren azaroaren 5ean bukatuko da.

Badakizue helbidea:  
"HONDARRIBIA" aldizkaria  
"Hitzez hitz" lehiaketa  
Euskara Kontseilua  
Udaletxea  
20280 - Hondarribia

Asmatzaileen arteko lehen zozketa urtaril aldean izango da.